

HARREMANAK:

↓	↓
<p>Pertsonala Dendetara datozen bezeroen zalantzak eta galderak erantzuteko prest egongo gara; baita, interesatuta badaude produktuaren ekoizpena prozesua azalduko diegu. Horrez gain, produktua dendan erosi ahal dute; halakoetan produktuarekin pozik ez badaude, arazoa konpontzen saiatuko gara.</p>	<p>Automatizatua Sortu dugun webgunearen bitartez, bezeroek gure proiektua eta enpresari buruz informatzeko enpresaren jardueri buruzko informazio guztia eskuratu ahal izango dute; baita telefono zenbakia eskabideak, kexak edo iradokizunak egiteko. Gainera, webgunean guk sortutako dieten salmenta egingo dugu, eta etxez etxeko zerbitzua bermatuko dugu.</p>

Bezero berriak erakartzeko eta izango ditugunak mantentzeko, gure **web-orria eta Instagram kontua** izango ditugu eskuragarri, gure produktuei eta antolatutako jardueri buruz informazioa emateko eta salmenta egiteko.

Zertarako instagram kontua?

- Instagram kontuaren bidez zalantzak biltzeko postak eta galderi erantzuten dieten **azalpen eta aholku bideoak** igoko ditugu iragarkiez gain.

Zertarako webgunea?

- Horren harira, webgunean **informazio gehigarria** aurki dezakete bezeroek. Dieta zerez osatuta dagoen, txakurrengan dituen onurak, ingurumenean daukan eragina...
- Informazioataz gain, **interneteko salmenta** ere eskuragarri egongo da gure bezeroentzat. Guk fabrikatutako dietak interneten ere salgai egongo dira eta etxez etxeko zerbitzua egingo dugu alokatutako furgoneta elektrikoan dietak eramanez.
- Gainera **testak ere eskuragarri** izango dituzte txakur motaren arabera dieta ze dieta den egokia jakiteko. Hori zehazteko arraza, adina, pisua, ariketa fisikoa eta beste hainbat faktoreei lotuta dago, ala nola txakurra gaixorik edo ahul egoteari ere.

Bestalde, gure proiektua sustatzeko eta zabaltzeko, **supermerkatuetan kartelak** ere izango ditugu, eta nola ez, zerbitzurik onena emango dugu, itzultzeko zalantzarik izan ez dezaten.

